EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DIRU SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Diru-sarrerak bermatzeko laguntza, 31/2012 Foru Dekretuan arautua dagoena**,** 2012an sortu zen. 2011an Eusko Legebiltzarrak, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak bermatzeko legea murriztu egin zuen, laguntza hori jasotzeko eskubidea izateko hurrengo betebeharrak aldatuz:

1) derrigorrezko errolda epea gutxienez 3 urteetara luzatu,
2) etxebizitza bakoitzeko bi laguntza-ekonomikora mugatu
3) pertsona migratzaileen kasuan, beraien herrialdean ezkonduta egongo balira bi urteko epea dute erreagrupazio familiarra egiteko edo banantzeko.

Aldaketa hauek eragindako murrizketa sozialari irteera bat ematearren, Gipuzkoako Foru Aldundiak DSBL delakoa jarri zuen martxan, hainbat familia eta pertsonek bizi duten pobrezia-egoeraren aurkako neurri bezala.

Diru sarrerak bermatzeko laguntzaren eskaera, udal teknikarien bidez kudeatzen da oinarrizko gizarte zerbitzuetan. Datuei erreparatzen badiogu: 2015ean 1.438 elkarbizitza unitate jaso dute diru-laguntza hau eta, horietatik, %78,37ak ez du beste diru sarrerarik. 2014An, Donostian, 423 eskaera tramitatu ziren eta 396 onartuak izan ziren.

Jakin izan dugu, azaroan zehar, Gipuzkoako Foru Aldundiak galdetegi eta txosten bat bidali duela Gipuzkoako udaletara, DSBLa dela eta. Galdetegia irakurri dugunean larritu egin gara, kontuan izanda fokoa onuradunen jatorrian jartzen dela eta laguntza honen balioa horren arabera zalantzan jartzen dela. Bestetik, nahiz eta teknikariek esaten duten 2016erako 14.225.000 euro beharko direla DSBLa ordaintzeko, Foru Aldundiko aurrekontuan 11.000.000 euroko partida jarri dute soilik.

Honen harira, abenduaren 14an Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean egindako interpelazioan, Aitziber San Román Gizarte-ekintzako zinegotziari galdetu genion languntza honen inguruan eta gaia Gizarte-ekintzako kontseilura eramatea eskatu genion. Lotsagarria da bere aldetik jasotako ernatzuna: *"no voy a responder a nada, porque no es de mi competencia",* izan ziren bere hitzak.

Onartezina da Donostiako 400 familia inguru diru-sarrerarik gabe eta bazterkeria-egoeran geratzeko aukeraren aurrean, arduradun politiko batek horrelako erantzuna ematea.

IERK/
CIF
P2007
3001X/
TEDR
PE
6897
0120
1065
5
2011-
06-

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Gogorarazi behar da, gainera, laguntza hori Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela, baina udalek kudeatzen dutela, eta are gehiago, familia horiek inongo diru-sarrerarik gabe eta bazterkeria egoeran geratuko balira, Donostiako Udalak ere izango lukeela haien gaineko ardura. Gipuzkoako Foru Aldundiaren inkestaz ezer ez esan izanak ere agerian uzten du Aitziber San Romanen ardura eta sentsibilitate falta.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, azterketa bat egin dezala Diru-Sarrerak Bermatzeko Laguntzak Donostiako elkarbizitza unitateetan duen eraginari buruz eta hiritarren bazterketa-egoerak ekiditeko baliagarria den ala ez neurtuz.
2. Udalbatzak eskatzen dion Udal Gobernuari, Foru Aldundiaren eta udalen arteko Diru-Sarrerak Bermatzeko Laguntzaren balorazio prozesuaren parte egitea hiriko Gizarte-ekintzako kontseiluari.
3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, Gipuzkoako Foru Aldundiak udal teknikariei bidali dien galdetegia errefuxa dezala, bertan jasoak dituen aurreiritzi eta ideiak arrazakeria sustatzearen bidean doala ondoriozta daitekeelako.
4. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari galdegin diezaiola Aldundiari Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzen partida ekonomiko handitu dezatela, berau ezinbestekoa duten gipuzkoar eta donostiar orok berau jasotzea bermatzearren.

IERK/
CIF
P2007
4004A/
TEDR
RE
0120
6894
10655
2011-
06

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia